XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3785

31/2015 EBAZPENA, uztailaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Urkabustaizko irla-hariztiak (ES2110003) kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak argitaratzea xedatzen duena.

1/2014 Legegintzako Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartu zen. Dekretu horretako 22.5 artikuluan ezartzen denez, kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) deklaratzeko dekretuek aintzat hartu behar dituzte Eusko Jaurlaritzak halako eremuak kontserbatzeko onartutako arauak. Eusko Jaurlaritzak, halaber, aginduko du eranskin gisa argitaratzeko eremuok kudeatzeko jarraibideak, lurralde historikoetako foru-organoek onartutakoak.

Ildo horretatik, Urkabustaizko irla-hariztiak kontserbazio bereziko eremu izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak, maiatzaren 19ko 74/2015 Dekretuaren bitartez. Dekretu horretako 3.2 artikuluan eta azken xedapenetatik lehenengoan xedatzen denez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren eskumena da argitara ematea, dekretuaren eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak onartutako kudeaketa-jarraibideak eta -neurriak.

Horrenbestez, aintzat hartuta Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 9ko 301/2015 Erabakiaren bidez onartu zituela «Urkabustaizko irla-hariztiak (ES2110003) Batasunaren Garrantzizko Lekua egoki kontserbatzeko eta hango habitaten hondamena eta espezieen gorabeherak saihesteko kudeaketa-jarraibideak eta -neurriak», honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian III. eranskinean argitara ematea Urkabustaizko irla-hariztiak (ES2110003) kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2015eko ekainaren 9an onartuak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 21a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 21EKO 31/2015 EBAZPENARENA.

III. ERANSKINA, MAIATZAREN 19KO 74/2015 DEKRETUARENA

URKABUSTAIZKO HARIZTI IRLAK KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN IZENDAPENA (ES2110003)

Kudeaketa jarraibide eta neurrien dokumentua

Behin betiko onarpena



2015EKO EKAINA

URKABUSTAIZKO HARIZTI IRLAK KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA -KBE- (ES2110003)

KUDEAKETA JARRAIBIDE ETA NEURRI EDO JARDUKETAK

AURKIBIDEA

1. KUDEAKETA JARRAIBIDE ETA NEURRI EDO JARDUKETAK
2. KUDEAKETA NEURRI EDO JARDUKETEN PROGRAMA ETA KALKULU EKONOMIKOAK.

1.- KUDEAKETA JARRAIBIDE ETA NEURRI EDO JARDUKETAK

Euskal Herriko natura babesteko Legeak –testu bateratua apirilaren 15eko 1/2012 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi zen– mekanismo jakin bat zehazten du espazioen babes figurak aztertzeko, erkidegoko araudiaren babesean sortuak, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuekin lotuta.

Horrela, Euskal Herriko natura babesteko Legeak, 22. artikuluan, 5. idatz zatian, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuen aitorpenarekin lotuta, zera ezartzen du: *"Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak."*

Artikulu horretan ezarritakoa betetzeko, dokumentu honetan Urkabustaizko Harizti Irlak Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kudeaketa jarraibide eta neurri edo jarduketak ezartzen dira (ES2110003).

1.1 Basoak

HELBURUAK ETA NEURRIAK	
1. xedea	**Basoen gaur egungo azalerari eustea eta baso kudeaketa egokia ezartzea, hau da, basoaren aldeko kontserbazio egoerari dagokion naturaltasun maila eta egitura konplexutasuneko maila lortzearekin bateragarria izango dena.**
1.1. emaitza	**Bertako basoak kontserbatzea, haien naturaltasuna eta egitura konplexutasuna hobetuta.**
	KUDEAKETA JARRAIBIDEAK - Fisiografia naturalaren aldaketa eragingo duten urbanizazio, eraikuntza eta jarduketa erabileren baimenak saihestuko dira, baldin eta eremuko babesari edo kudeaketari, ikerketari, ingurumen hezkuntzari edo zientzia zabalkundeari lotuta ez badaude. - Mozketak eta basoko gainerako jarduketak hariztien egitura aniztasuna handitzera eta joera hori mugatzen duten eragileak ezabatzera bideratuta daude.

	- Basoen kudeaketa basogintzako irizpideen arabera egingo da, naturatik hurbil, soilgune handiak zabaldu gabe, beharrezkoa izan ezean osasun, birsorkuntza edo teknikoki justifikatutako kausengatik. - Edozein helmuga duten zuhaitzen seinalatzeetan, ornogabe saprofilikoen, hegaztien edo saguzarren espezieak kontserbatzeko garrantzitsuak diren interes-oinak babestuko dira. - KBEren baso kudeaketak saihestu egingo ditu funtsezko espezieen edo kudeaketarako xede diren eta babes bereziko erregimenekoak diren florari eta faunari (batez ere habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan) gorabehera garrantzitsuak eragin diezazkiokeen KBEen basoetako jarduketak. Horrez gain: • Lan egutegia prestatu beharko da, habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan munta handieneko lanak egin ez daitezen, batez ere apirila eta uztaila artean. • Zarata maila handia eragiten duten edo bat-bateko zaratak sortzen dituzten lanak saihestu beharko dira habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan, batez ere apirila eta uztaila artean. • Habiak egiteko eta kumeak hazteko eremuetatik lanak egiten diren lekuetara tarte egokia utzi beharko da, betiere dagokion eremua adierazita, eta batez ere apirila eta uztaila artean. • Ur puntuak babestu beharko dira, urteko sasoiaren arabera ohikoa den ur maila manten dadin eta uraren gehituko duten edo partikula esekien kontzentrazioa gehituko duten jardunak egin ez daitezen, jalkinen ekarpena gerta ez dadin, eta ura kutsa dezaketen gaiak isur ez daitezen. • Lanak egin ezin diren eta makinak zeharkatu ezin dituzten eremuak argi eta garbi mugatu beharko dira (zinta batekin edo antzeko metodo batekin). - Aziendaren zirkulazioa eta larratzea onargarriak izango dira, betiere, landarediaren eraketaren garapen egokiarekin bateragarriak badira. Helburu horrekin, larreratzeko barrutiak eta, baimena duten arloetan, azienda sartzeko egutegia ezartzea komeni den aztertuko da. - Baso pistetan baimendutako jarduketak egungo bideetako zoruak eta drainatzeak hobetzera baino ez dira egongo bideratuta, trazen

	eta zeharkako eta luzetarako profiletan aldaketa esanguratsurik egin gabe. - Koniferoen baso landaketen eta/edo beste exotiko batzuen bilakaera sustatuko da, titulartasun publikokoak, lehentasunez, bertoko basoen eraketarako, edo larratze edo zuhaizdun larratzeetarako; edo horiek mantentzea sustatuko da. Hori guztia, koniferoen masetarako idazten den plangintzak ezartzen dituen jarraibideen arabera. - Basoak larreekiko ertzetan atzera ez egiteko beharrezkoak diren neurriak eta mugak ezarriko dira, baita hiltzen edo ahultzen ari diren zuhaitzak agertzen dituzten bazkatoki bihurtutako eremuak berreskuratzeko ere. - Jabetza partikularreko baso edo landazabaletan baso akordioak edo kontratuak sustatuko dira, intereseko landazabalak eta zuhaiztiak kontserbatzeko. - Intereseko zuhaitz hostogalkor autoktonoen (seneszenteak, motzak, oso helduak, oso handiak, adartsuak, espezie sekundarioetakoak, pizidoen habiak dituztenak…) presentzia mantendu eta sustatuko da. - Zuhaitzen eta zuhaixken espezieen aniztasuna areagotzea sustatuko da. - Baso kudeaketan haritzak izango du pagoak baino lehentasun handiagoa baso masa mistoetan, betiere baso aprobetxamendua jardun marjinala den lekuetan. **JARDUKETAK** 1.- Plana indarrean dagoen lehenengo bi urteetan, KBEren hiru sektoreetako basoen parametro kuantitatiboetan oinarritutako kontserbazio egoera ebaluatzea eta, horretarako, erreferentzia gisa Baso Inbentario Nazionalaren lurzati iraunkorren sarea erabiltzea. Lan horiek, besteak beste, zuhaitz zaharrak edo bereziak, intereseko flora eta fauna, urmaelak eta istilak, eta beste hainbat

	kontserbatzeko interes berezikoak diren elementuak geoerreferentziatzeko eta kartografiatzeko aprobetxa daitezke. 2.- Aurreko ebaluazioaren emaitzen arabera, basoen egiturazko konplexutasuna handitzeko neurriak proposatzea. 3.- Baso horien mantentze lan zuzenera egokitzen diren abeltzaintzako kargak zehaztea. Bereziki, Oiardotik hurbil dauden sektoreetan, txikia delako, azienda basoaren birsorkuntza naturala zein arlotan ari den eragozten, zeinetan andeatzen duen oihanpea edo kaltetzen duen zuhaitz helduen biziraupena identifikatzea eta kartografiatzea. 4.- Azienda basoaren birsorkuntza naturala eragozten, oihanpea andeatzen eta zuhaitz helduen biziraupena kaltetzen ari den guneetan, pertsona titularrekin akordioak sustatzea, horietako sarbidea mugatzeko, dela KBEen mugetatik kanpo askak edo kortak jartzeko zuzeneko laguntzen bidez, dela KBEren perimetroan hesia jartzeko edo egokiak diren beste batzuetarako zuzeneko laguntzen bidez. 5.- Administrazio publikoek KBEn sartutako mendi pribatuaren lursailen gainean duten erosteko lehentasunezko eskubidea baliatuko dute, 11/2007 Foru Arauak, mendienak, ezarritako baldintzetan. 6.- Basoak larreekiko ertzetan atzera ez egiteko, aberasteko landaketak egitea, birsortzeko itxitura txikien eta/edo itxitura indibidualen bidez. Itxiturak modu irregularrean egingo dira, soilguneak eta trantsizioko arloak sortzeko bide emateko, belardi eta baso artean.

1.2 Baso igel jauzkaria (*Rana dalmantina*)

HELBURUAK ETA NEURRIAK	
2. xedea	**Baso igel jauzkariak (*Rana dalmatina*) KBEren barruan duen kontserbazio egoera ezartzea, espeziea babesteko eta umatzeko mikrohabitatak edo elementuak egon daitezen**

	sustatzea, eta populazioen arteko konexioa bultzatzea.
2.1. emaitza	**Baso igel jauzkariak (*Rana dalmatina*) eta anfibioen beste espezie batzuek KBEn duten banaketa behar beste ezagutzea, eta mikrohabitaten agerpena eta populazioen arteko konexioa sustatzea.**
	KUDEAKETA JARRAIBIDEAK - KBEren eremuan eta haren eragin eremuan erabileretarako eta jardueretarako baimenek baso igel jauzkariaren berezko habitatak kontserbatzeko garrantzia hartuko dute kontuan. - Espazioaren kudeaketa baso igel jauzkariaren habitatak kontserbatzera eta hobetzera bideratuko da. - Harizti Irlen kudeaketa baso orbanak gurutzatzen dituzten ur bideak babesteko izango dira; horrela, ibilguetatik enborrak eta adarrak ateratzea saihestuko da, nahiz eta horiek txikiak izan, eta, beraz, putzu eta urmaelak sortzeko bide emango eta bermatuko da. Uraren presentzia zainduko da, batez ere udako sasoian. - KBEtik hurbil dauden urmaelak eta putzuen eraketak kontserbatuko dira eta edonolako aldaketa saihestuko da. Aldaketarik eraginez gero, hazkuntza aldian presentzia bermatzen duten putzu edo urmael txikiak eratzeko egokitasuna aztertuko da. - Anfibioentzako urmael berriak sortzeko, anfibioentzako egokiak diren ekosistemak birsortzeko ezarritako protokoloei jarraituko zaie, hau da, behintzat, basoaren morfologia irregularrak diseinatuko dira eta ur bazterren maldak 30º-tik beherakoak izango dira. **JARDUKETAK** Bere naturaltasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzen duten bertoko basoen kontserbazioari buruzko neurri guztiak eta KBEren hiru sektoreen konektibitatea ziurtatzeko neurriak aplikatuko dira. 7.- KBEn eta hurbileko inguruetan baso igel jauzkariaren eta anfibioen beste espezie batzuen banaketa eta ugaritasuna kalkulatzeko azterketa egitea, babesleku egokien eskaintza zehaztea eta kartografiatzea eta habitataren erabilera KBEren mugen barruan eta kanpoan bereiztea. 8.- Urmael eta/edo gune hezeak berreskuratzeko jardunak garatzeko edo urmael berriak sortzeko, anfibioak eta, batez ere, baso igel jauzkaria ugaltzeko aukera ematen duten lekuak identifikatzea eta, horretarako, dauden populazioen arteko konexioa hobetzea eta garapenerako programa lehenetsia

	ezartzea kontuan hartuta. 9.- KBEren barruan urmaelak sortzea, baso igel jauzkarien presentzia izan duten puntuetatik hurbil dauden guneetan, bai KBEren barruan, bai inguruetan, eta horietan espeziea agertzen ote den eta aldi baterako ezartzen ote den kontrolatzea. 10.- Aziendak urmael egindako guneetan izan ditzakeen eraginak aztertzea, eta urmael bilakatutako guneen presentzia eta uraren kalitatea bermatu ahal izateko azienda buruaren kopuru egokia kalkulatzea. 11.- Populazioak (KBE barne) elkarren artean lotzen dituzten heskai edo zuhaiztien sarea sortzeko aukera aztertzea eta proposatzea, baso igel jauzkariaren joan-etorriari bide emateko. 12.- Ertzen perimetroan, hala behar duten urmaeletan landaredia bandak egokitzea eta, horretarako, anfibioen sakabanaketa errazteko babeslekuak eta arloak sortzea. Ingurumena zuzentzeko eta babesteko neurriak hartuko dira, hezegune horietatik hurbileneko inguruetan.

1.3 Kiropteroak

HELBURUAK ETA NEURRIAK	
3. xedea	**Bechstein saguzarraren (*Myotis bechsteinii*) kontserbazio egoera ezartzea, populazioak egonkor mantentzea eta berariazko habitatak egon daitezen sustatzea.**
3.1. emaitza	**Bechstein saguzarraren (*Myotis bechsteinii*) banaketa, ugaritasuna eta eskakizunak behar beste ezagutzea.**
	KUDEAKETA JARRAIBIDEAK - Mehatxatutako kiropteroen presentzia antzematen denean, KBEko basoko lanak eta jardunak aztergai den espeziearen baldintza eta ezaugarri biologikoetara egokituko dira. - Baso helduak kudeatzeko proposatutako neurri guztiak eta sasitza eta larreak mantentzeko eta urmaelak mantentzeko eta sortzeko proposatutako neurriak aplikatuko dira. - KBEren erakunde kudeatzaileak eman beharreko barrunbeetarako bisiten baimenak honako baldintza hauek izango ditu: eragozteko debekua, dauden animaliei argazkiak egitea barne, azetilenozko lanparak erabiltzea, hondakinak edo hondarrak

	bertan uztea (organikoak edo inorganikoak), eta elikagaiak jatea. - Kiropteroen ekologia eskakizunei egokituko zaizkie egitura berrien eraikitzea eta KBEko eremu barruko azpiegitura edo eraikinak edo kultura ondare direnak zaharberritzeko jarduerak. Manu horrek hau ere gehitzen du: kiropteroen koloniak daudenetan, ugalgaraian (maiatza eta abuztu artean, biak barne), debekatuta egongo da eraikinak zaharberritzea eta teilaberritzea. - “Ebaluazio egokia”ren prozeduretarako beharrezko fauna azterketak behar beste denboraz egin beharko dira, eta, gutxienez, ahultasun handieneko aldiak jaso beharko ditu, alegia, hazkuntza eta migrazio aldia. **JARDUKETAK** Bere naturaltasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzen duten bertoko basoen kontserbazioari buruzko neurri guztiak eta KBEren hiru sektoreen konektibitatea ziurtatzeko neurriak aplikatuko dira. 13.- Bechstein saguzarraren eta KBEn dauden beste saguzar batzuen ugaritasuna kalkulatzea, babesleku egokien eskaintza zehaztea eta kartografiatzea eta habitataren erabilera bereiztea KBEren mugen barruan eta kanpoan. 14.- Babesleku egokien eskaintza nahikoa ez dagoela zehazten bada, babesteko kutxak instalatzeko beharra balioetsiko da, bai eta zuhaitz kopuru egokia eraztunez lotzeko ere, saguzarrentzako onuragarria den habitataren egokitasuna areagotzeko. 15.- Hiru urterik behin, behintzat kolonien eta habitataren jarraipena egitea. 16.- Aziendak Bechstein saguzarraren koloniaren gainean eragin ditzakeen ondorio positiboak edo negatiboak aztertzea, eta kolonia kontserbatuko dela bermatzen duen azienda buruen kopuru egokia kalkulatzea, kontuan hartuta saguzar horrek oihanpe ez oso trinkoak eskatzen dituela. 17.- Kolonia dagoen tokiaren ingurua edo babeslekua hondatu dela antzematen bada, denbora laburrean babesleku artifizialak ezarriko dira egungo babeslekutik ahalik eta hurbilen edo KBE barruko lekuetan, egungo kokalekuaren antzeko ezaugarriekin. 18.- Prebentzio modura, Abornikanotik Pabazilio basorako baso pistako sarbidea erregulatzea, seinaleen bidez, ibilgailuen joan-etorria gutxitzeko eta baimendutako auzokide edo pertsonei joan-etorria mugatzeko.

	19.- Administrazio eskudunek espeziea larreratzeko arloetan dauden -gutxi gorabehera koloniatik 500 metroko radio batean- nekazaritzako eta basogintzako ustiapenak nekazaritzako eta ingurumeneko, basogintzako neurrietara egokitzea sustatuko dute, basoen funtzio ekologikoa eta babeslea bermatzeko, EAEko Landa Garapenaren Planean jaso den bezala. 20.- Baso baliabideen kudeaketako parte hartzaileei -administrazio mailak kontuan hartuta-, babeslekuen guneen berri emango zaie, bai eta horiek duten garrantziaren eta inguruetan baso kudeaketa egokia egiteko beharraren berri ere.

1.4 Irla basoen konektibitatea eta beste prozesu ekologiko batzuk

HELBURUAK ETA NEURRIAK	
4. xedea	**KBEren hiru sektoreen konektibitatea ziurtatzea.**
4.1. emaitza	**Urkabustaizko Harizti Irlak KBEren konektibitatea hobetu da.**
	<u>KUDEAKETA JARRAIBIDEAK</u> - Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzea, KBEn batasunaren intereseko eta/edo lehentasunezko habitaten arteko lotura bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitat katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekin ere. Lotura aldetik interesa duten guneak identifikatu, eta bidezkoa bada kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak inplementatuko dira. - KBEren hiru sektoreak beste baso masa batzuekin lotzen dituzten heskaien eta baso masa txikien identifikazioa eta kartografia sustatuko da. Kartografia egin ondoren, heskairik eta baso masa txikirik garrantzitsuenak aukeratuko dira, eta horiek kontserbatzeko neurriak proposatuko dira. **<u>JARDUKETAK</u>** 21.- Oiardotik hurbil dauden sektoreak inguratzen dituzten sega-belardien jabeekin akordioak sustatzea, lurzatien mugetan eta ibaiaren ibileren ondoan zehaztu beharreko guztizko zabalera duten zatiak landatzeari eta larreratzeari uzteko, heskaien sarea, sasitzen gune txikiak, ekotonoak, bideen ertzetako landaredia eta erriberako landaredia pixkanaka berreskuratzeko, Dehesa eta

	Garaiko sektoreen inguruan, faunarako babeslekua errazteko eta sektore horien eta inguruko baso azaleren sektoreen arteko konektibitatea hobetzeko. Jarduketa horiek hemen hasi beharko dira: ▪ Dehesaren sektorearen eta ES2110004 Arkamu-Gibijo-Arrastaria espazioaren arteko sektorean: Urkabustaizko 1. poligonoko katastroko[1] lurzatietako eta barruko azpilurzatietako erriberen marjinetan, bideetan eta larreetan, heskaien 3.000 m lineal mantentzea, Dehesaren sektoreko hegoaldeko muturra eta Goiuriko Dehesako hariztien guneak eta Alto del Pino (ES2110004 Arkamu-Gibillo-Arrastaria) lotzen dituen ardatzean. ▪ Garaiko sektorearen, Oiardo errekaren eta ES2110009 Gorbeia espazioaren artean: Urkabustaizko 1. poligonoko katastroko[2] lurzatietako eta barruko azpilurzatietako erriberen marjinetan, bideetan eta larreetan, heskaien 3.000 m lineal mantentzea, Garaiko ekialdeko muturra eta Oiardoko erreka eta, ekialderago, Somo de Zurrabaroko eta Peña de Zearrako gune basotsuak (ES2110009 Gorbeia) lotzen dituen gunean. 22.- Behintzat, AP-68 KBEtik igarotzen den tartean, dagoen drainatzeetako bat hobetzea, drainatzearen funtzioa eta faunaren igarotzea konbinatzen dituen funtzio ugariko beheko igarobidea zehazteko. Hobekuntza egiteko, gai honen inguruan dauden baldintza teknikoak bete beharko dira (Ingurumen Ministerioa, 2006). 23.- AP-68an faunarako beheko pasagune bereziak edo goratuak sortzea teknikoki bideragarri egiten duten puntuak identifikatzea. Analisi hori egin ondoren, kudeaketak egitea AP-68 autobidearen iragazkortasuna sustatzeko. 24.- A-2521 errepidean, 23. eta 27. PKen artean, harrapaketak murrizteko neurriak har daitezela sustatzea. Neurri horiek zehazteko (zenbait jarduketa jaso ahalko dituzte, besteak beste, faunaren igarobideak eraikitzea, itxidura perimetralak ezartzea, etab.), tarte horretan dagoen arazoa xehetasunez islatuko duten azterketa zehatzak egin behar dira. 25.- KBE inguruko guneetan edo horietatik hurbil daudenetan, gaur egun landaredi natural belarkaraz, zuhaixka formakoaz eta/edo zuhaizkaraz estalita daudenetan, habitatak kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak sustatzea.

[1] Lurzatiak: 223, 433, 434, 435, 436, 437, 565, 567 eta 609

[2] Lurzatiak: 223, 433, 434, 435, 436, 437, 565, 567 eta 609

	26.- Inpaktuen eragina duten arloak berreskuratzea (higadurak, antzinako legar hobiak eta harrobiak etab.) eta, horretarako, espazio horien ingurumenaren leheneratzea aztertzea. 27.- Inguruko nekazari guztiei heskaien eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.

1.5 Kudeaketan laguntzeko tresnak

1.5.1 Biodibertsitateari buruzko ezagutzak eta informazioa

HELBURUAK ETA NEURRIAK	
5. xedea	**Ahalik eta zehaztasun gehienez ezagutzea Urkabustaizko Harizti Irlen biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta zein den kontserbazio egokirako egoera, bai eta galera edo suntsiketa eragin dezaketen kausak zein diren zehaztea ere, horrela, epe luzerako mantentzea bermatu dezaketen beharrezko neurriak berriro diseinatzeko eta egokitzeko.**
5.1. emaitza	**Aldian behin eguneratzen den kartografia dago kontserbaziorako interesekoak diren habitat guztietarako, bai eta dibertsitate biologikorako eta integritate ekologikorako garrantzitsuak diren elementu edo gune naturalena edo kulturalena ere.**
	<u>JARDUKETAK</u> 28.- Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea eta, horretarako, bereziki azpimarratzea bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografietan antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzea ere. 29.- Urkabustaizko udalerriak, dagoeneko badagoen instalazioan, liburutegia edo dokumentazio zentroa izan dezala sustatzea, KBEko eta inguruetako ingurumen informazioarekin, eta sortzen doan informazio berria sar dezala. 30.- “Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal geoerreferentziatua” sortzea, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaeletarako, heskaietarako, landa

	bideetarako, bidexketarako, azaleratze geologikoetarako etab. Elementu bakoitza bereizteko, gutxienez, interesa eta koordenatu zehatzak adierazi beharko dira.
5.2. emaitza	**Habitaten eta babes bereziko erregimenean dauden basa espezieen eta funtsezko elementuen edo kudeaketaren helburu direnen kontserbazio egoera ezagutzen da.**
	JARDUKETAK 31.- Habitaten eta babes bereziko erregimenean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentarauaren 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetzeko.
5.3. emaitza	**Urkabustaizko Harizti Irlaren dibertsitate biologikoaren eta bertako espezieek eta ekosistemek ematen dituzten ingurumen ondare eta zerbitzuen guztizko balio ekonomikoaren kalkulua eginda dago.**
	JARDUKETAK 32.- Azterketa bat egitea, tresna honetan aurreikusitako neurriak aplikatzeagatik errenta murriztuta duten jarduerak zehazteko, bai eta errentaren galeragatiko konpentsazio mekanismoak eta zenbatekoak ere. 33.- Urkabustaizko Harizti Irlaren KBEren dibertsitate biologikoaren eta bertako espezieek eta ekosistemek ematen dituzten ingurumen ondare eta zerbitzuen guztizko balio ekonomikoaren azterketa.
5.4. emaitza	**Istripu ugariko guneen mapa bat egin da KBEn eta bere inguruan basoko faunaren hilketa ez naturalerako.**
	KUDEAKETA JARRAIBIDEAK - Natura Babesteko Batzorde Nazionalak onetsitako “Pozoidura Kasuetan Jarduteko Protokoloa” aplikatzea, eta adituen frogak legezko berme guztiekin egiteko gomendioak jasotzen dituen dokumentu teknikoa egitea. **JARDUKETAK** 34.- Urtero, Urkabustaizko Harizti Irlatik eta bere ingurutik

	Martiodako Basoko Fauna Berreskuratzeko Zentroan sartzen diren basoko espezieen erregistroak bilduko dira. 35.- Herritarrei, abeltzainei, jabeei, basozainei, mendi elkarteei, sindikatuei, ehiztariei, albaitariei eta lurraldean dauden beste kolektibo batzuei erregistro hau egin dela jakinaraziko zaie, hautemandakoak administrazio eskuduneko langileei jakinarazteko. 36.- Eskuratutako informazioaren bidez, istripu ugariko guneen mapa egingo da. Aldian behin, mapa eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko. 37.- Urtero basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egingo da, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatuko da.
5.5 emaitza	**Akuiferoaren eraginak ezagutzen dira eta prebentziorako erregimena eta alertarako sistema jarri dira martxan.**
	<u>KUDEAKETA JARRAIBIDEAK</u> - Kutsadura handitu dela antzemanez gero, beharrezko neurri zuzentzaileak idatziko dira, eraginak dakartzaten jarduerak kontrolatzeko. **<u>JARDUKETAK</u>** 38.- Urtero, KBEtik hurbil dauden laginketa estazioen lurpeko eta azalerako ur kalitatearen txostenak aztertzea.

1.5.2 Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta herritar kontzientzia

HELBURUAK ETA NEURRIAK	
6. xedea	**Urkabustaizko Harizti Irlaren KBErengan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizarte partaidetza sustatzea, bai eta herritarren partaidetza ere kontserbaziorako.**
6.1. emaitza	**Aldian behin herritarrei KBEn biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazio ulergarria zabaltzen zaie, bai eta ingurumeneko laguntzei, egoera ahulak dakartzaten kausei, horren inguruko politika publikoei eta emaitzei buruzko informazioa ere.**

	JARDUKETAK 39.- Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean Urkabustaizko Harizti Irlaren KBEri atal berezia eskaintzea eta hura eguneratzeko mekanismoa aurreikustea. 40.- Flora eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurriei buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika daitezkeen gizarte sektoreei zuzenduta. Urkabustaizko Udalean eta 5 kontzeju etxeetan, gutxienez KBEri eta Natura 2000ri buruzko bi informazio panel jarriko dira. 41.- Jendeari jakinaraztea basogintza legeria giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko. 42.- Jendeari jakinaraztea basogintza kudeaketa giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko. 43.- Bi urterik behin ebaluazioak egitea, herritarrek KBEri eta bere helburuei buruz duten ezagutza, jarrera eta jokabide maila neurtzeko eta, horrela, herritarren komunikazio, hezkuntza eta kontzientziarako ekintzak berriro bideratu ahal izateko.

1.5.3 Gobernamendua

HELBURUAK ETA NEURRIAK	
7. xedea	**Organo publiko eskudun guztien erakunde koordinazioa hobetzea eta ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honen helburuarekin eta xedeekin eta horiek lortzeko ezartzen dituen jarduketa, jarraibide eta arauekin bat etortzeko.**
7.1. emaitza	**Batzorde tekniko iraunkorra sortu da, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritzaren jarduketak eta Arabako Foru Aldundiarenak koordinatzeko, Urkabustaizko Harizti Irlen KBEn.**
	KUDEAKETA JARRAIBIDEAK - Natura 2000 espazioen naturagune babestuaren izaera kontuan hartuta, administrazioek onesten dituzten lurralde antolamendurako tresnek eta hirigintzako plangintzakoek saihestuko dute artifizializatzea eta sailkapena lurzoru urbanizaezinetik lurzoru urbanizagarrira edo hiritarrera aldatzea, arlo horietan dauden habitat naturalak eta espezieak

	kontserbatzen direla bermatzeko. **JARDUKETAK** 44.- Lan talde egonkorra sortzea Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean, dokumentu honetan jasotako neurrien aplikazioan laguntzeko. Jarraipen organo hau, gehienez, KBE izendatu eta urtebetera eratu beharko da. 45.- Aurreikusitako neurrietan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, Foru Aldundiaren sailekin eta Eusko Jaurlaritzaren sailekin edo KBEn eskumenak dituzten beste administrazio batzuekin eta tartean diren udalekin eta administrazio batzordeekin beharrezko hitzarmenak eta gainerako koordinazio mekanismoak ezarriko dira.

2. JARDUKETA PROGRAMA ETA KUDEAKETA NEURRIAK. KAKULU EKONOMIKOAK.

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 22. artikuluan ezartzen duena betetzeko, jarraian programa honetako jarduketa eta neurriei dagozkien kalkulu ekonomikoak zehaztuko dira.

22.3. artikulua.

Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.

Jarraian, aipatu den 8. artikulu hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

1. *Kontserbazio bereziko eremu izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak eta/edo lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruz proposamenak egiten dituzten aldi berean, Estatu kideek Batzordeari haien kalkuluak bidaliko dizkiote, bidezkoa*

denean, Europako Batasunaren finantzaketari buruz egokitzat jotzen dutena dela-eta, 6. artikuluko 1. idatz-zatian hitzartuta dagoenaren arabera haien betebeharrak bete ahal izateko.

2. *Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, finantzaketa eskatzen deneko leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu ezinbestekoak diren neurriak, lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo lehengoratzeko, eta neurri horien ondoriozko kostu osoak ere zehaztuko ditu.*

FUNTSEZKO ELEMENTUA	NEURRIA EDO JARDUKETA	KOSTUA (€)
BASOAK	1.- Plana indarrean dagoen lehenengo bi urteetan, KBEren hiru sektoreetako basoen parametro kuantitatiboetan oinarritutako kontserbazio egoera ebaluatzea. Lan horiek, besteak beste, zuhaitz zaharrak edo bereziak, intereseko flora eta fauna, urmaelak eta istilak, eta beste hainbat kontserbatzeko interes berezikoak diren elementuak geoerreferentziatzeko eta kartografiatzeko aprobetxa daitezke.	5.000
	2.- Aurreko ebaluazioaren emaitzen arabera, basoen egiturazko konplexutasuna handitzeko neurriak proposatzea eta hartzea.	40.000
	3.- Baso horien mantentze lan zuzenera egokitzen diren abeltzaintzako kargak zehaztea. Bereziki, Oiardotik hurbil dauden sektoreetan, txikia delako, azienda basoaren birsorkuntza naturala zein arlotan ari den eragozten, zeinetan andeatzen duen oihanpea edo kaltetzen duen zuhaitz helduen biziraupena identifikatzea eta kartografiatzea.	2.000
	4.- Azienda basoaren birsorkuntza naturala eragozten, oihanpea andeatzen eta zuhaitz helduen biziraupena kaltetzen ari den guneetan, pertsona titularrekin akordioak sustatzea, horietako sarbidea mugatzeko, dela KBEen mugetatik kanpo askak edo kortak jartzeko zuzeneko laguntzen bidez, dela KBEren perimetroan hesia jartzeko edo egokiak diren beste batzuetarako zuzeneko laguntzen bidez	50.000
	5.- Administrazio publikoek KBEn sartutako mendi pribatuaren lursailen gainean duten erosteko lehentasunezko eskubidea baliatuko dute, 11/2007 Foru Arauak, Mendienak, ezarritako baldintzetan.	60.000
	6.- Basoak larreekiko ertzetan atzera ez egiteko, aberasteko landaketak egitea, birsortzeko itxitura txikien eta/edo itxitura indibidualen bidez Itxiturak modu irregularrean egingo dira, soilguneak eta trantsizioko arloak sortzeko bide emateko, belardi eta baso artean.	15.000

FUNTSEZKO ELEMENTUA	NEURRIA EDO JARDUKETA	KOSTUA (€)
BASO IGEL JAUZKARIA	7.- KBEn eta hurbileko inguruetan baso igel jauzkariaren eta anfibioen beste espezie batzuen banaketa eta ugaritasuna kalkulatzeko azterketa egitea, babesleku egokien eskaintza zehaztea eta kartografiatzea eta habitataren erabilera KBEren mugen barruan eta kanpoan bereiztea.	3.000
	8.- Urmael eta/edo gune hezeak berreskuratzeko jardunak garatzeko edo urmael berriak sortzeko, anfibioak eta, batez ere, baso igel jauzkaria ugaltzeko aukera ematen duten lekuak identifikatzea eta, horretarako, dauden populazioen arteko konexioa hobetzea eta garapenerako programa lehenetsia ezartzea kontuan hartuta.	3.000
	9.- KBEren barruan urmaelak sortzea, baso igel jauzkarien presentzia izan duten puntuetatik hurbil dauden guneetan, bai KBEren barruan, bai inguruetan, eta horietan espeziea agertzen ote den eta aldi baterako ezartzen ote den kontrolatzea.	40.000
	10.- Aziendak putzu egindako guneetan izan ditzakeen eraginak aztertzea, eta putzu bilakatutako guneen presentzia eta uraren kalitatea bermatu ahal izateko azienda buruaren kopuru egokia kalkulatzea.	2.000
BASO IGEL JAUZKARIA	11.- Populazioak (KBE barne) elkarren artean lotzen dituzten heskai edo zuhaiztien sarea sortzeko aukera aztertzea eta proposatzea, baso igel jauzkariaren joan-etorriari bide emateko.	3.000
	12.- Ertzen perimetroan, hala behar duten putzuetan landaredia bandak egokitzea eta, horretarako, anfibioen sakabanaketa errazteko babeslekuak eta arloak sortzea. Ingurumena zuzentzeko eta babesteko neurriak hartuko	15.000

	dira, hezegune horietatik hurbileneko inguruetan.	

FUNTSEZKO ELEMENTUA	NEURRIA EDO JARDUKETA	KOSTUA (€)
KIROPTEROAK	13.- Bechstein saguzarraren eta KBEn dauden beste saguzar batzuen ugaritasuna kalkulatzea, babesleku egokien eskaintza zehaztea eta kartografiatzea eta habitataren erabilera bereiztea KBEren mugen barruan eta kanpoan.	5.000
	14.- Babesleku egokien eskaintza nahikoa ez dagoela zehazten bada, babesteko kutxak instalatzeko beharra balioetsiko da, bai eta zuhaitz kopuru egokia eraztunez lotzeko ere, saguzarrentzako onuragarria den habitataren egokitasuna areagotzeko.	5.000
	15.- Hiru urterik behin, behintzat kolonien eta habitataren jarraipena egitea.	5.000
	16.- Aziendak Bechstein saguzarraren koloniaren gainean eragin ditzakeen ondorio positiboak edo negatiboak aztertzea, eta kolonia kontserbatuko dela bermatzen duen azienda buruen kopuru egokia kalkulatzea, kontuan hartuta saguzar horrek oihanpe ez oso trinkoak eskatzen dituela.	2.000
	17.- Kolonia dagoen tokiaren ingurua edo babeslekua hondatu dela antzematen bada, denbora laburrean babesleku artifizialak ezarriko dira egungo babeslekutik ahalik eta hurbilen edo KBE barruko lekuetan, egungo kokalekuaren antzeko ezaugarriekin.	2.000
	18.- Prebentzio modura, Abornikanotik Pabazilio basorako baso pistako sarbidea erregulatzea, seinaleen bidez, ibilgailuen joan-etorria gutxitzeko eta baimendutako auzokide edo pertsonei joan-etorria mugatzeko.	1.000

KIROPTEROAK		
	19.- Administrazio eskudunek espeziea larreratzeko arloetan dauden -gutxi gorabehera koloniatik 500 metroko radio batean- nekazaritzako eta basogintzako ustiapenak nekazaritzako eta ingurumeneko, basogintzako neurrietara egokitzea sustatuko dute, basoen funtzio ekologikoa eta babeslea bermatzeko, EAEko Landa Garapenaren Planean jaso den bezala.	-
	20.- Baso baliabideen kudeaketako parte hartzaileei -administrazio mailak kontuan hartuta-, babeslekuen guneen berri emango zaie, bai eta horiek duten garrantziaren eta inguruetan baso kudeaketa egokia egiteko beharraren berri ere.	1.000

FUNTSEZKO ELEMENTUA	**NEURRIA EDO JARDUKETA**	**KOSTUA (€)**
IRLA BASOEN KONEKTIBITATEA ETA BESTE PROZESU EKOLOGIKO BATZUK	21.- Oiardotik hurbil dauden sektoreak inguratzen dituzten sega belardien jabeekin akordioak sustatzea, lurzatien mugetan eta ibaiaren ibileren ondoan zehaztu beharreko guztizko zabalera duten zatiak landatzeari eta larreratzeari uzteko, heskaien sarea, sasitzen gune txikiak, ekotonoak, bideen ertzetako landaredia eta erriberako landaredia pixkanaka berreskuratzeko, Dehesa eta Garaiko sektoreen inguruan, faunarako babeslekua errazteko eta sektore horien eta inguruko baso azaleren sektoreen arteko konektibitatea hobetzeko. Jarduketa horiek hemen hasi beharko dira: ▪ Dehesaren sektorearen eta ES2110004 Arkamu-Gibijo-Arrastaria espazioaren arteko sektorean: Urkabustaizko 1. poligonoko katastroko lurzatietako eta barruko azpilurzatietako erriberen marjinetan, bideetan eta larreetan, heskaien 3.000 m lineal mantentzea, Dehesaren sektoreko hegoaldeko muturra eta Goiuriko Dehesako hariztien guneak eta Alto del Pino (ES2110004 Arkamu-Gibillo-Arrastaria) lotzen dituen ardatzean. ▪ Garaiko sektorearen, Oiardo errekaren eta ES2110009 Gorbeia espazioaren artean: Urkabustaizko 1. poligonoko katastroko lurzatietako eta barruko azpilurzatietako erriberen marjinetan, bideetan eta larreetan,	40.000

	heskaien 3.000 m lineal mantentzea, Garaiko ekialdeko muturra eta Oiardoko erreka eta, ekialderago, Somo de Zurrabaroko eta Peña de Zearrako gune basotsuak (ES2110009 Gorbeia) lotzen dituen gunean.	
IRLA BASOEN KONEKTIBITATEA ETA BESTE PROZESU EKOLOGIKO BATZUK	22.- Behintzat, AP-68 KBEtik igarotzen den tartean, dagoen drainatzeetako bat hobetzea, drainatzearen funtzioa eta faunaren igarotzea konbinatzen dituen funtzio ugariko beherako igarobidea zehazteko. Hobekuntza egiteko, gai honen inguruan dauden baldintza teknikoak bete beharko dira (Ingurumeneko Ministerioa, 2006).	30.000
	23.- AP-68an faunarako beheko pasagune bereziak edo goratuak sortzea teknikoki bideragarri egiten duten puntuak identifikatzea. Analisi hori egin ondoren, kudeaketak egitea AP-68 autobidearen iragazkortasuna sustatzeko.	2.000
	24.- A-2521 errepidean, 23. eta 27. PKen artean, harrapaketak murrizteko neurriak har daitezela sustatzea. 27. Neurri horiek zehazteko (zenbait jarduketa jaso ahalko dituzte, besteak beste, faunaren igarobideak eraikitzea, itxidura perimetralak ezartzea, etab.) tarte horretan dagoen arazoa xehetasunez islatuko duten azterketa zehatzak egin behar dira.	2.000 2.000
	25.- KBE inguruko guneetan edo horietatik hurbil daudenetan, gaur egun landaredi natural belarkaraz, zuhaixka formakoaz eta/edo zuhaizkaraz estalita daudenetan, habitatak kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak sustatzea.	2.000
	26.- Inpaktuen eragina duten arloak berreskuratzea (higadurak, antzinako legar hobiak eta harrobiak etab.) eta, horretarako, espazio horien ingurumenaren leheneratzea aztertzea.	40.000
	27.- Inguruko nekazari guztiei heskaien eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.	2.000

FUNTSEZKO ELEMENTUA	NEURRIA EDO JARDUKETA	KOSTUA (€)
KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK	28.- Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea eta, horretarako, bereziki azpimarratzea bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografietan antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzea ere.	1.000
	29.- Urkabustaizko udalerriak, dagoeneko badagoen instalazioan, liburutegia edo dokumentazio zentroa izan dezala sustatzea, KBEko eta inguruetako ingurumen informazioarekin, eta sortzen doan informazio berria sar dezala.	5.000
	30.- “Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal geoerreferentziatua” sortzea, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaeletarako, heskaietarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratze geologikoetarako etab. Elementu bakoitza bereizteko, gutxienez, interesa eta koordenatu zehatzak adierazi beharko dira.	2.000
	31.- Habitaten eta babes bereziko erregimenean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentarauaren 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetzeko.	1.000
	32.- Azterketa bat egitea, tresna honetan aurreikusitako neurriak aplikatzeagatik errenta murriztuta duten jarduerak zehazteko, bai eta errentaren galeragatiko konpentsazio mekanismoak eta zenbatekoak ere.	2.000
	33.- Urkabustaizko Harizti Irlaren dibertsitate biologikoaren eta bertako espezieek eta ekosistemek ematen dituzten ingurumen ondare eta zerbitzuen	5.000

	guztizko balio ekonomikoaren azterketa.	
KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK	34.- Urtero, Urkabustaizko Harizti Irlatik eta bere ingurutik Martiodako Basoko Fauna Berreskuratzeko Zentroan sartzen diren basoko espezieen erregistroak bilduko dira.	-
	35.- Herritarrei, abeltzainei, jabeei, basozainei, mendi elkarteei, sindikatuei, ehiztariei, albaitariei eta lurraldean dauden beste kolektibo batzuei erregistro hau egin dela jakinaraziko zaie, hautemandakoa administrazio eskuduneko langileei jakinarazteko.	2.000
	36.- Eskuratutako informazioaren bidez, istripu ugariko guneen mapa egingo da. Aldian behin, mapa eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko.	1.000
	37.- Urtero basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egingo da, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatuko da.	1.000
	38.- Urtero, KBEtik hurbil dauden laginketa estazioen lurpeko eta azalerako ur kalitatearen txostenak aztertzea.	-
	39.- Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean Urkabustaizko Harizti Irlaren KBEri atal berezia eskaintzea eta hura eguneratzeko mekanismoa aurreikustea.	-
	40.- Flora eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurriei buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika daitezkeen gizarte sektoreei zuzenduta. Urkabustaizko Udalean eta 5 kontzeju etxeetan, gutxienez KBEri eta Natura 2000ri buruzko bi informazio panel jarriko dira.	8.000

KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK	41.- Jendeari jakinaraztea basogintza legeria giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko.	2.000
	42.- Jendeari jakinaraztea basogintza kudeaketa giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko.	3.000
	43.- Bi urterik behin ebaluazioak egitea, herritarrek KBEri eta bere helburuei buruz duten ezagutza, jarrera eta jokabide maila neurtzeko eta, horrela, herritarren komunikazio, hezkuntza eta kontzientziarako ekintzak berriro bideratu ahal izateko.	1.000
	44.- Lan talde egonkorra sortzea Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean, dokumentu honetan jasotako neurrien aplikazioan laguntzeko. Jarraipen organo hau, gehienez, KBE izendatu eta urtebetera eratu beharko da.	-
	45.- Aurreikusitako neurrietan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, Foru Aldundiaren sailekin eta Eusko Jaurlaritzaren sailekin edo KBEn eskumenak dituzten beste administrazio batzuekin eta tartean diren udalekin eta administrazio batzordeekin beharrezko hitzarmenak eta gainerako koordinazio mekanismoak ezarriko dira.	-

KOSTUA, GUZTIRA.....412.000 €